

INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2021EKO UZTAILA

Euskal AEko industria-jarduera % 7,5 hazi da 2021eko uztailean


2021eko lehenengo zazpi hilabeteetan Industria Produktzioaren Indizeak metatutako hazkundera % 12,9 izan da

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegiko termino homogeneoetan, Euskal AEko industria-produkzioa, 2021eko uztailean, 2020ko hil berean baino % 7,5 handiagoa izan da. 2021eko lehenengo zazpi hilabeteetako balantzearen amaieran, industria-jarduerak % 12,9 egin du gora.

2021eko uztaila eta ekaina alderatuta, Euskal AEko industria-produkzioa % 0,1 hazi da, urtaro-ondorioak behin zuzenduta.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2021eko uztaileko indizearen bilakaera, 2020ko uztailaren aldean, ez da homogeneoa izan industria-sektore handietan. *Kontsumo-ondasunek*, oro har, % 11,7ko urte arteko hazkundera izan dute; *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* % 41,9ko igoera eduki dute, eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* % 5,6koa. *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* epigrafean altzariak eta etxeko tresnak fabrikatzeko jarduerak ageri dira. Elikagaien fabrikazioa, prozesatzea eta kontserbazioa, garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa eta jantziak egitea dira, besteak beste, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* sektore handiaren barruko jarduerak.

Bitarteko ondasunek (metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa) % 8,9ko urte arteko igoera izan dute, eta *Ekipo-ondasunek* (motordun ibilgailuen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbideko materialaren egitea eta aireontziak edo itsasontziak egitea) % 7,2ko igoera.

Energia, non energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura eta petrolio finntzea dauden, aldiz, % 2,3 jaitsi da 2021eko uztailan urte arteko terminoetan.

2021eko uztailako hil arteko aldakuntza, 2021eko ekainaren aldean, negatiboa izan da industria-sektore handi guztietan, *Ekipo-ondasunetan* izan ezik, % 4,0 hazi baitira. *Energia* % 2,9 jaitsi da; *Kontsumo-ondasunak*, oro har, % 1,0 jaitsi dira produkzioan *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* % 1,2 jaitsi direlako eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* % 0,9 murriztu direlako. *Bitarteko ondasunak*, azkenik, % 0,3 jaitsi dira aurreko hilaren aldean.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2021eko uztaila

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak	
	Uzt2021 / Uzt2020	A(Uzt2021) / A(Uzt2020)(*)	Uzt2021 / Eka2021	Eka2021 / Mai2021
Indize orokorra				
Euskal AE	7,5	12,9	0,1	-1,8
Araba/Álava	6,9	12,0	5,3	-6,4
Bizkaia	8,1	10,6	-1,0	-0,1
Gipuzkoa	7,3	15,7	-1,8	-0,7
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	11,7	12,3	-1,0	1,8
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	41,9	40,2	-1,2	-4,8
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	5,6	6,6	-0,9	3,8
Ekipo-ondasunak	7,2	13,8	4,0	-4,2
Bitarteko ondasunak	8,9	16,9	-0,3	-1,0
Energia	-2,3	-4,8	-2,9	3,5

(*) 2021ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2020eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Xehekiago, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2021eko uztailan urte arteko susperraldi handiena izan dutenak izan dira *Makineria eta ekipoa* (% 18,1eko hazkundera), *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 12,2koa) eta *Material eta ekipo elektrikoak* (% 8,8koa). Aitzitik, urte arteko bilakaeran zeinu negatiboa izan duten sektoreak hauek izan dira: *Energia elektrikoak*, *gasa eta lurruna* (% 7,7ko jaitsierarekin) eta *Garraio-materiala* (% 2,0koarekin).

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	12,2
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	-7,7
09 - Kautxua eta plastikoak	5,1
13 - Makineria eta tresneria	18,1
14 - Garraio-materiala	-2,0
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	7,8
12 - Material eta tresneria elektrikoa	8,8
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	1,7

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Uztaileko Industria Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da hiru lurraldeetan. Hala, Bizkaian % 8,1 igo da, Gipuzkoan % 7,3 eta, azkenik, Araban % 6,9.

2021eko lehenengo zazpi hilabeteetako metatuan, Gipuzkoa hazi da gehien (% 15,7), gero Araba (% 12,0) eta, azkenez, Bizkaia (% 10,6).

INFORMAZIO OHARRA

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako ereduak COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) metodologia-oharrean emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, uztaileko indizea laginaren % **86,39ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62